ETA GURPIL KAPITALISTARI ERAGITEARI UTZIKO BALIO HAMSTERRAK?

Amaia Pérez Orozco
Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate



ETA GURPIL KAPITALISTARI ERAGITEARI UTZIKO BALIO HAMSTERRAK?

Amaia Pérez Orozco
Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

Testu hau bi iritzi-artikulu laburtzetik sortu da;
hain zuzen ere, izenburu berarekin 2020ko
azaroaren 11n eta abenduaren 8an *eldiario.es*-en
argitaratu ziren bi iritzi-artikuluetatik.

Itzulpena: Belaxe, Koop. E.
Diseinua eta maketazioa: Iñaki Landa
Lizentzia: Argitalpen honek Creative Commons lizentzia du: Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia.
Ikus lizentziaren kopia hemen: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/deed.eu

AURKIBIDEA

1. Gurpil kapitalistatik irtetea 4

1.1. Kapitalismoak ongizatea isurtzen du 5

1.2. Isurtzetik kapitala-bizitza gatazkara 6

1.3. Bizitza alertan, hautsita dagoen kapitalismoan 8

2. Irten gaitezen gurpil kapitalistatik 9

3. Gurpiletik kanpora irteteko erreferentziazko esparru bukatu gabea 10

3.1. Amalurtzea edo "biosferarekin bakeak egitea" 12

3.2. Desmerkantilizazioa edo "diru gutxiago eta taldeko gehiago" 13

3.3. Deskorporatibizazioa edo "enpresa handien aurka, orain" 15

3.4. Lurralderatzea edo "tokiko subiranotasunak" 16

4. Eztabaida amaigabea 17

1. GURPIL KAPITALISTATIK IRTETEA

Adoregabetasun sakona. Horixe da, agian, ia guztiok sentitzen duguna[1]. Behinik behin, gizarte-gehiengoak, herriak, langileok (geure burua izendatzeko erabiltzen dugu-na erabiltzen dugula). Eta bizi-baldintzetan sumatzen ari garen hesitze bortitzaren kontzientziak eragiten digu adoregabezia hori. Hesitze global eta ekosistemikoa baita. "Etxerik gabe, lanik gabe, pentsiorik gabe". Halaxe abiatu zen, orain hamar urte (2011n), *Juventud sin futuro (Etorkizunik gabeko gazteria)*. "Beldurrik gabe" erantsi zuten, adoregabetasuna beldur bihur ez zedin arao eginez.

Ez gaitzala bestelako etorkizun batek beldurtu. Zer gertatzen zaigun ulertzea izan daiteke sentipen paralizatzaile horren aurkako antidotoa. Eta, funtsean, kapitalismoa da gertatzen zaiguna, kolonialismoarekin eta heteropatriarkatuarekin osatzen duen korapilo konsustantzialean. Halere, ez gara gai, antza, geure buruak muga horietatik kanpo irudikatzeko; pentsatzeko "posible dela bestelako mundu-amaiera bat". Langileak, hamsterrak balira bezala, pedalei etengabe eragiten, gurpil kapitalistaren mugimenduari eusteko eta, horrela, pedalkada horiekin beren ongizate-kuota urria lortzeko. Gure ustetan, irudi horrek ondo baino hobeto islatzen du gure egoera. Metafora horretan datza hain hedatuta dagoen diskurtsoa: hazkunde ekonomikoari (hots, merkataritzaren hazkundeari) eta kapital-metaketari eutsiz soilik lortuko dugu, larri samar bada ere, gure bizitzei atxikitzea.

Nahikoa da egungo pandemia-eztandari eta ekarri duen krisi zibilizatzaileari aurre egiteko eskuinek eta ezkerraren zati handi batek egiten dituzten proposamenak aztertzea, ohartzeko mantra hori —herriaren ongizatea metaketa kapitalistaren ondorio baino ez da— onartzera mugatzen direla egingarriaren esparrua eta agentzia politikoa. Antzinako baina gaurkotasun handiko *isurtzearen teoria ekonomikoaz* dihardugu; horren arabera, enpresen irabaziak gizartean isurtzen dira, enpleguari eta politika publikoei esker.

Baina kapitalismoa (berorren diskurtso eta guzti) ez da Jainkoaren inposizio bat, ezta helmuga historiko saihestezin bat ere. Gurpilaren erritmo etengabeari eustearren korrika egitera bultzatzen gaituen proiektu bat da, enplegu eta politika publiko gehiagorekin edo gutxiagorekin kolapso ekologikora, desberdinkeria gero eta handiagoetara, egiturazko indarkeriara eta kontrol sozialera amiltzen gaituena. Betidanik falazia bat izan den isurtzearen teoriari sekulako zuloak agertu zaizkio orain: ez dago hazkunde iraunkorrik, enplegua gero eta prekarioagoa eta urriagoa da (digitali-

1. Hizkuntzaren alorreko ohar bi, irakurtzen hasi aurretik. Hizkuntzaren binarismo heteronormatibotik ihes egiten saiatu gara testu honen jatorrizko (gaztelaniazko) idazketan. Horretarako, generorik gabeko hitzen alde egin dugu apustu, eta, zenbait kasutan, "x" erabili dugu, mintzagai dugun gizarte-multzoaren sexu- eta genero-identitatean dagoen aniztasuna azpimarratzearren. Beste batzuetan, femenino generikoa erabili dugu, maskulino generikoaren erabilera historikoari kontrapisu egiteko (nahiz eta maskulino generikoa ere agertzen den noizbait). Ez dugu nahita aukera bakarraren alde egin; izan ere, ez dugu uste inorekin "ezkontza sakrosantua" egin behar denik, Beatriz P. Repesek eta Paula Pérez-Rodríguezek beren "desobedientzia linguitikorako" deian argudiatzen dutenez. Gainera, inoiz edo behin emakumeak* ere idatzi dugu —izartxoa erabiliz subjektu horren aniztasuna eta askotarikotasuna erakusteko—, azpimarratzeko beste pribilegio- eta zapalkuntza-ardatz batzuekin batera eraikitzen dela generoa —arrazoi beragatik, *gizonez* mintzatuz gero, *gizonak** idatzi beharko genuke—.

zazioaren eta automatizazioaren eraginez), eta politika publikoak, oro har, atzituta daude, botere korporatiboaren mesedetan.

Metatzearen amarru horretatik irten beharra daukagu: gurpil kapitalistak ez du ongizatea isurtzen, bizitza erasaten du. Kapitala-bizitza gatazkak hobeto azaltzen du kapitalismoa, isurtzearen teoriak baino. Halere, amarrua hortxe dago: gaur-gaurkoz, gurpilean gaude. Botere korporatiboak kontrolatzen ditu bizitzaren ugalketa-bitartekoak, eta gure ongizatearen ikuspegia merkantilizatuta dago erabat. Gaur egun diskurtso eta agenda korporatiboak halako hegemonia du, ezen kolapso kapitalista eragin nabarmena ari baita izaten gizarte gehiengoen ongizatean. Ezin dugu ukatu. Baina ezta amore eman, adorea galdu eta beldurtu ere.

Eta, amarruan geratu nahi ez dugunez eta amarrua egon badagoela ukatu nahi ez dugunez, uste dugu trantsiziorako proposamenak behar ditugula: eragin negatibo hori arinduko duten estrategiak, gurpiletik kanpo berrantolaketa sozioekonomikoa egiteko bidea irekiko dutenak, elkarrekin bizitzea merezi duen bizitzari beste zentzu batzuk bilatuz. Prozesu horrek ez du bat-batean mundu erabat desberdina eraiki nahi sistematik at, baina ezta hura itsu-itsuan onartu ere, zeren eta sistemarekiko gatazkatik eta berorren amarruaren kontzientziatik soilik ireki ahal izango baitugu.

Horrenbestez, gurpil kapitalistatik irteteko deia da testu hau, eta trantsizio-estrategia horietarako erreferentziazko ardatz batzuk proposatzen ditu. Elkarrizketa horizontala bilatzen dugu, adimen kolektiboa eraikiko duena, modu bakarra baita une honen eta bila ari garen erantzunen konplexutasunari aurre egiteko. Eta elkarrizketa horri geure begirada eskaini nahi diogu, Europatik eta nolabaiteko ukitu ekonomikoarekin, horixe delako gure errealitateari begiratzeko abiapuntua. Badakigu inork ez duela erabateko garbitasunetik hitz egiten, eta, ondorioz, denok erratuko garela, bai ala bai. Orain, erantzun behar bezain onak (ez perfektuak) bilatzeko sasoia da.

1.1. Kapitalismoak ongizatea isurtzen du

Kapitalismoan bizitzea ez da hemen halabeharrez egotea (beste edonon egotea bezala). Haren agindu zibilizatzailearen mende egotea da, zeinaren arabera kapitalaren eta errentaren fluxuan oinarritzen baita ongizate orokorra. Enpresa-irabaziak ahalik eta gehien handitzeko dinamika bilatzea du lehentasun, eta, horretan oinarrituz, sozietate osoari ongizatea isurtzea, batik bat bi bitartekaritza-mota baliatuz: enplegua eta estatua.

Bi muturrak lotzen dituen kate nagusia da enplegua: zenbat eta irabazi handiagoak, orduan eta inbertsio handiagoak, eta, ondorioz, enplegu handiagoa, kontsumoa eta, beraz, ongizatea. Ustez, enpleguak nahikoa sarrera sortzen ditu, bizitzari eutsi, masiboki kontsumitu eta eskariaren bidez errenta-fluxua iraunarazteko. Gainera, merkatuko lanari lotzen zaizkion gizarte-eskubide asko eta asko lortzea ahalbidetzen du: osasuna, langabezia-prestazioa, erretiroa, alargunatasuna eta abar.

Estatua da bigarren bitartekaritza-mota, eta bi bide eskaintzen ditu: lehenak, gizarte-politika publikoak garatzearenak, aberas-

tasuna banatzeko nolabaiteko dinamikak sortzen ditu, eta, horrela, desberdinkeriak arindu eta jasangarritasuna eta bizitzaren ugalketa ahalbidetzen du; bigarrena merkatuak arautzeko neurriak bultzatzean eta botere korporatiboari eustean datza, eta bilatzen du horiek interes orokorrari atxikitzea, nola edo hala.

Hortxe kokatzen da posible denaren esparru kapitalista. Bitartekaritza horiei ematen zaien pisuaren arabera finkatzen dira diferentzia politikoak posibilismo kapitalista horren barruan: nola sortu inbertsio-bide egonkorrak, nola sortu enplegu gehiago eta hobea, zer fiskalitate eta zer politika publiko jar daitezkeen martxan... Horixe da onartutako marjina. Horrela, antzeko eskema partekatzen da: kapital-metaketaren gurpila ez geratzea ezinbesteko baldintza da gure bizitzarako. Eskuinentzat, (ia) nahikoa. Eta esparru horrekin bat egiten duten ezkerrentzat, beharrezkoa da, baina ez nahikoa; horregatik, erakunde publikoak eta lanbaldintzak sendotzearen alde egiten dute.

Eztabaida harrapatuta geratzen da *kapitala-enplegua-estatua-ongizatea* sekuentziaren barruan; izan ere, helburu berberen inguruan batzen gaitu guztiok, eta, gatazka handirik gabe, egonkortasunaren eta hazkundearen agertokia bermatzen digu. Gogo falta areagotzen ari al da ortzi-muga hau?

1.2. Isurtzetik kapitala-bizitza gatazkara

Jandako hitzaren ondorio da, agian, adoregabetasuna. Diskurtso faltsua da, eta jasanezintasuna eta desberdinkeria ugari dakartzan errealitate bat ezkutatu du beti. Bi bitartekaritza ahulen bidez lortutako herri-ongizate batera mugatzen gaitu, eta horiek lortzen saiatzen da, baina kapital-metaketa premisa eztabaidaezina dela dioen logika deus ere ukitu gabe.

Enplegua funtsezkoa da gaur egun ongizatea lortzeko; hori ukaezina da. Bai, *soldataren morroiak* gara. Alabaina, lotura hori ez da ez aldaezina eta ez ahistorikoa. Bizitza kolektiboa ugalketa-bitartekoez gabetzeko prozesu baten ondorio da, eta bitarteko horiek kapitala *ekoizteko* (metatzeko) bitarteko pribatizatu bihurtzen dira. Bitartekook kendu ostean, gure zentzuak eta bizitzarako aurreikuspenak merkantilizatu egiten dira, eta enplegua jotzen dute aukera bideragarri bakartzat eta kontsumoa ongizatearen ardatz egituratzailetzat.

Morrontza hori onartzeak langile gisa identifikatzea ahalbidetzen digu gizarte-gehiengooi. Aukera eman diezaguke, borroka politiko bat eraikitzeko, ez enplegutik, enpleguaren aurka; izan ere, lan alienatu bat da, ez baitugu egiten zentzu soziala duelako, baizik eta bizitza merkantilizatuari eusteko dirua behar dugulako. Indarrak batu eta borroka horri ekin ez diezaiogun, botere korporatiboak nahastu egiten gaitu sarritan. Nolabait esan, *klaseak lausotzeko bitartekoak* baliatzen ditu, langileok behartzeko edo errentei eta finantzei esker bizitzen saiatzera (eta ez soldatari esker), edo geure buruaren nagusi bihurtzera, ekintzailetzaren bidez. Alabaina, nahasmen horrek ibilbide laburra du; izan ere, bai, enpleguaren mende gaude. Halere, baieztapen horretan oinarrituz borrokatu beharrean, iruzurrezko argudio honetan erortzen gara: enplegurik gabe ez gara, ezin gara, ez izan eta ez bizi. Eta botere korporatiboak argudio hori erabiltzen du, lanpostu-galerarekin

mehatxu egiteko eta, horrela, arriskuak sozializatzeko.

Gainera, enpleguaren eta ongizatearen arteko lotura horrek badu kontrako aurpegia ere, *B-aurpegia*, eta konpontzen du (edo konpontzen saiatzen da) bai soldatak ukitzen ez duen guztia, bai merkatuek bizitzari egiten dioten kalte guztia. Ikusezin bihurtu diren lanez dihardugu (zenbaitzuetan *zaintza-lan* gisa izendatu ditugunez), azken finean horiexek baitira, nekez bada ere, bizitzari eusten diotenak. Soldatako lanaren ezkutuko aurpegia dira, haien hondarra eta oinarria: feminizatzen, arrazializatzen eta ikusezin bihurtzen duten lanak. Pandemiarekin argitara irteten saiatu den izebergaren oinarri gordea osatzen dute.

Horrela, bada, kapitala eta lana antagonistak dira, inola ere ez aliatuak, hala merkataritzaren alorrean gainbalioa lortzearren klaseek duten lehia ezberdinari dagokionez, nola kapital-fluxuari eusteko ezinbestekoa den *b aurpegi* horri dagokionez. Bizitza eta lana enpresen mende daudela sentiarazten digun diskurtsoaren aurrean, esan behar da enpresak direla, hain zuzen, bizitza-ugaltzearen mende daudenak.

Kapitalaren eta lanaren arteko gatazka hori egiturazko beste gatazka batzuei ere lotzen zaie. Gatazka heteropatrialkala da bigarrena. Horren bidez bermatzen da, nekez bada ere, existitzen ez diren lanetatik (zaintzetatik) bizitzari eustea, ekonomikoak ez diren alorretan (sareko etxeetan) eta subjektu politiko ez diren pertsonen (emakumeen*) eskutik. Hortxe datza lanaren sexu-banaketaren zentzu sakona kapitalismoan. Hirugarren lekuan, sistemaren eta metatze- eta gabetze-prozesu globalen berezko desberdinkeria dago, diskurtso eta jardueera arrazista eta kolonialistek legitimatua, zeintzuek baztertu, *bestetu* eta narriatu egiten dituzten erdigunetik eta eliteetatik urruti dauden bizitzak, jakintzak eta botereak. Kapitalismoaren etengabe hazteko dinamika dugu laugarrena. Oinarri fisiko eta material infinituaren eta ekosistema perfektuki irekiaren fartsak euskarritzen du, eta, bilakaera harrapakarian, kapitalaren eta naturaren arteko gatazka, gaur egun paroxismora eramana, sortzen du.

Gatazken gurutzatze hori dela eta, kapitala-bizitza gatazka handiaren indarraz mintzatu behar dugu. Kapitalismoa euskarritzen duen egiturazko tentsio konponezina da, sekula ez dena (eta ezin dena) deusezta tu enpleguaren eta politika publikoen eraginez. Horixe da, eta ez isurtzearen teoria, gaur egun gertatzen ari denari gehien hurbiltzen zaion azalpena.

Gatazka dagoela aitortu gabe baina tentsioak egon badaudela onartuz, (ongizate-) estatuak bere burua legitimatzen du, tentsiook ezabatzeko eta merkatu-ekonomia kapitalistaren esparruan bizi-baldintza duinak bermatzeko mekanismo gisa. Legitimitate-funtzio bikoitzarekin jokatzen du, ongizatearen (eta metatzearen) gutxieneko batzuk bermatuz eta kapitalaren zirkuitua ongi dabilela ziurtatuz. Esan dezakegu langileriaren uneko lorpena eta egiturazko ukapena dela aldi berean; lorpena partziala da, zeren eta iparralde globaleko ongizate-estatuen funtsak beti izan baitira lanaren banaketa sexual eta arrazializatua, hegoalde globala ondasunez gabetzea eta ingurumen-harrapaketa. Baina tentsioa sakona da, eta azaleratu egiten da beti; eta, azaleratzen denean, estatuak alde berera biratzen du beti.

Hamarraldiz hamarraldi argi eta garbi ikusi izan dugu botere korporatiboak nolako erasoa egin duen publikoa eta komuna dena bereganatzeko. Batetik, erabaki-eremu nagusiak eskualde- eta mundu-esparruetara eramatea lortu dute enpresa transnazionalek; alegia, herritarrengandik urrutien daudenetara eta presio korporatibo handiagoa dutenetara. Eta konstituzio korporatibo global bat ari dira eratzen, azken belaunaldiko merkataritza- eta inbertsio-tratatuen olatu berriaren eskutik. Bestetik, zapalgailu neoliberala enpresa publikoak pribatizatzen ari da 70eko urteetatik, bai eta eskubide kolektiboak desarautzen, politika sozialak (indarrean dauden lekuetan) murrizten eta imajinario berriak bistaratzen (hala nola aliantza publiko-pribatuak) ere; horiek, praktikan, enpresaren zerbitzura jartzen dituzte erakundeak.

Garbi dago ezin garela estatuaz fidatu, kapitalismoaren barruan planeta osoko ongizatearen alde egiteko, are gutxiago desjabetze-prozesu globaletan euskarritutako sistema honetan. Kasurik onenetan, eta munduko toki batzuetan beste batzuetan baino gehiago (edo beste batzuen kontura), politika sozialek eta birbanatzean oinarritutakoek arindu egiten dute bizitza ugaltzeko bitartekoen kontrol- eta jabetza-kontuetan dagoen gero eta desberdinkeria handiagoa; hori bai, *business as usual* (betiko negozioa) maxima sekula arriskutan jarri gabe. Baieztapen horrek ez du baztertzen publikotasuna eztabaidaeremu bihurtzea komuna denaren beste ikuspegi batzuetatik; egiten duena da eztabaida hori posibilismo kapitalistatik harago eraman eta, geroago azalduko dugunez, liskarretik trantsizio-esparru batean kokatu.

Azken finean, kapitalismoaren inguruan egituratutako sistemak, enpleguaren eta estatuaren bitartekaritzari esker ongizatea isuri beharrean, beste zerbait egiten du: *kapitala-bizitza metagatazka*n bat egiten duten hainbat gatazkak ukitutako menderatze-sistema anizkoitza eskaini. Gatazka hori kokatzeko esan behar da bizitzak oso balio ezberdina duela sistema horretan: baliorik handiena, botere korporatiboa dutenen artean; balio aldakorra eta pribilegio batzuk izateko aukera, botere horri zerbitzu ematen diotenen artean, eta baliorik txikiena hilda soilik balio dutenen edo hondarrak baino ez direnen artean. Kapitalismoaren izaera biozida arazo komuntzat hartzeko, bizitza kolektiboari eragiten dioten desberdinkeria sakonak aztertu behar ditugu. Gatazka hori kokatzeko, halaber, bizitzaren ugalketa arriskutan dagoela onartu behar da; beraz, posible denaren esparru estua zeharkatu behar dugu, irmoki eta lehenbailehen.

1.3. Bizitza alertan, hautsita dagoen kapitalismoan

Gaur egun, gainera, muturreraino iritsi da kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka. Batetik, kapitalismoak ez ditu egonkortasuna eta hazkundea bermatzen, eta, bestetik, ez du baliabiderik herritarren gehiengoari behinik behin ongizatea eskaintzeko, inguru batzuetan bada ere.

Kapitalismoa gripatuta dago, metatze-krisi sakona ari da jasaten. Lehenik eta behin, ez da gai produktibitate orokorra, inbertsioa, enplegua eta kontsumoa ekarriko dituen olatu luze bat sortzeko, ELGEk berak ere aitortzen duenez. Bigarrenik, kapita-

lismoaren etengabe hazteko dinamikak gainditu egin ditu planetaren muga fisikoak, garbi erakusten dutenez klima-aldaketa geraezinak eta materialen eta energia-iturri fosilen ahitzeak. Horrenbestez, paradoxa baten aurrean dago (oinarri fisiko txikiago eta zaurgarriago batez haztea), eta parekorik ez duen fenomeno historikoa da hori. Hirugarrenik, garbi ez badago ere ekonomia digitalaren aldeko apustu estrategikoak metatze-fase solido batera gidatuko ote gaituen, garbi dago enplegua prekarizatzen eta, kopuru absolutuetan, murrizten jarraituko duela, eta, ondorioz, txikitu egingo duela enpleguaren bitartekari-garrantzia. Laugarrenik, *big tech* megaenpresen protagonismo izugarriak handitu egiten ditu botere korporatiboaren hedadura eta irismena, hori arautzeko gauza ez diren (edo, kasu askotan, borondaterik ez duten) erakunde publikoen kaltetan. Eta, azkenik, estatu gehienak erasoaldia ari dira jasaten, hegemonia korporatiboaren alde aliantza publiko-pribatua sendotzeko eta inbertsioan eta kontsumoari eusteko eginkizunean rol nabarmenagoa emateko. Horrek erasan egiten ditu birbanaketaren eta merkatuak arautzearen aldeko politikak, eta urrundu egiten ditu, behin betiko, interes kolektiboa babesteko helburutik.

Horrela, bada, isurtzearen teoria jada ez dago pitzatuta, suntsituta dago. Berorren bitartekaritzak lausotu egiten dira. Eta, noizbait teoria horrek arrakastarekin limurtzen jarraitu ahal izan bazuen ere, gaur egun bizitzaren prekarietatea eta bazterketa dira nagusi, aldeekin bada ere, herritarren gero eta segmentu handiagoetan eta planetako gero eta eremu gehiagotan. *Garapenaren* ametsa birrindu egin da. Eta, limurtzeko gaitasuna zenbat eta txikiagoa, orduan eta handiagoa da lanaren bidez bizitza gero eta egoera gogorragoetan aurrera ateratzeko borrokan ari direnen mendekotasuna bermatzeko baliatzen den indarkeria. Gogorkeria arrazista eta heteropatriarkalak, kapitalismorako baliagarriak izateaz gain, bide egokia dira porrotean gero eta sakonago erortzen ari den maskulinotasun zuriaren zauriak miazkatzeko.

2. IRTEN GAITEZEN GURPIL KAPITALISTATIK

Amiltzen ari den gurpiletik irteteko premia inoiz baino handiagoa da gaur egun. Gizarte-amildegiari eta kolapso ekologikoari indarrez eta itxaropenez aurre egitekotan, enplegutik, zerga-sistematik eta politika publikoetatik harago hedatu behar da eragile politikoen esparrua, kapital-metaketa funtsezkoa baitute horiek. Kontua ez da, inondik inora ere, gurpil barruko eztabaidagune horiei uko egitea. Gainezka eragiteko erabili behar ditugu, beste logika batzuetatik sortzen ari diren beste batzuekin batera. *Trantsizio-estrategiak* behar ditugu, aukera emango digutenak posibilismo kapitalistatik irten eta dugunetik nahi dugunera joateko.

Bi gauza ahalbidetu behar dizkigute trantsizio-estrategia horiek. Alde batetik, gurpil kapitalista eraisteko erabakiaren ondorioak arintzea. Izan ere, ondorioak nabarmenak izango dira bi arrazoirengatik: boterea asimetrikoa delako eta etengabeko desjabetzea nozitu dugulako bizitza ugaltzeko oinarrizko bitartekoen jabetzan eta kontrolean —gaur egun, kapitala metatzeko bitarteko bihurtuta daude—. Beste alde batetik, eta aldi berean, etorkizun bideragarri batean kokatu behar gaituzte

trantsizio-estrategia horiek, eta eraldaketa sakonak ekarri beharko dituzte bilbe, egitura eta zentzu hegemonikoetan. Guk defendatzen dugun ikuspegian, tentsioan egon beharko dute, etengabe, orainak eta geroak; premiazkoak eta estrategikoak; jarduerak eta diskurtsoak, eta gaur egun erdigunean daudenak (lan alienatu bat egiteko lan-eskubideak, kapitala-bizitza gatazka ezabatu nahi duen ongizate-estatu horren mekanismoak), ertzetan daudenak (zaintza-sareak, nekazarien eta herritarren ekonomiak, gizarte-ekonomia eraldatzaileak…) eta gorantz datorrenak.

Ez da, eta ezingo da izan, lan erraza. Nola ekarriko dugu praktikara? Zer erreferentziak lagunduko digute horretarako estrategiak bilatzen? Zer indar batu beharko ditugu horiei bultzatzeko? Nola hautsi ahal izango dugu agenda sozialdemokratak (metatze-amarruaren bertsio progresistak) eskaintzen digun esparru estua? Nola saihestuko dugu helmuga ideala lortzeko bidean jarduera-prozesu errealarekin kontaktua galtzea? Zer balio ematen diegu egun mahai politikoaren gainean dauden proposamenei, edo oraindik posizionatzeko daudenei? Nola lortuko dugu huts egin eta, elkarrekin, berriro abiatzea eta huts egitea, edo, agian, behingoz asmatzea?

3. GURPILETIK KANPORA IRTETEKO ERREFERENTZIAZKO ESPARRU BUKATU GABEA

Erantzuna behar duten galdera asko ditugu. Eta erantzunak ezingo dira inolaz ere behin betikoak izan, are gutxiago sistema hiperkonplexutu eta zalantzaz jositako testuinguru honetan. Edonolako dogmak eta agenda itxi nahiz totalizatzaileak alde batera utzita, gure proposamenen partzialtasuna eta kokapena onartzen ditugu, elkarrizketa zintzo horizontal eta intersekzional bat garatu ahal izateko.

Puntu horretatik, eta gure joera ekonomizista eta europarra onartuz, *erreferentzia-esparru* hau proposatzen dugu, gurpil kapitalistatik irteteko. Elkar osatzen duten lau ardatz ditu oinarri: *amalurtzea*, desmerkantilizazioa, deskorporatibizazioa eta bizitzaren antolamendu kolektiboa lurralderatzea.

Abiapuntuak baino ez dira ardatzok, agenda eta estrategia kontestualizatuak sortzeko abiapuntuak; inolaz ere eraikin bukatu bat. Itsasargiak bezalakoak dira guretzat, laguntzen digutelako egungo borroka politikoaren konplexutasunean nabigatzen eta zidorrak irudikatzen, hazkuntza kapitalistaren arabera posible denaren egungo esparrutik irten eta beste batera iragateko. Beste esparru horretan, *kapitalismoaren oinarriak sakonki berrantolatuko dira, kolektibo askotarikoaren mesedetan birbanaketa erradikal eta dimentsioaniztuna eginez*. Gure asmoa da bizitza guztiak garrantzizkotzat joko dituen ehun politiko eta sozioekonomikoa osatzea, botere korporatiboaren esku dagoen metatze biozidaren aurrean.

Erreferentziazko esparru horretan, lehen urratsa izango da zentzua, balioak eta lehentasun sozioekonomikoak birdefinitzea, goitik behera eta irizpide demokratikoak erabiliz. Metatzeak minimo demokratikoak erasotzen ditu, eta bizitzaren iraunkortasuna arriskutan jarri. Hori dela eta, metatzea ezin da izan *estutasunik gabe bizitzea* zer den definitzeko balio nagusia, ezta talde-helburu hori lortzeko erabili nahi

ditugun moduak antolatzekoa ere. Horretarako, funtsezko baldintzak dira gure bizi-zentzumenak merkantilismotik eta desjabetzetik askatzea, eta merkatu kapitalistak eta enpresa transnazionalak (metatzearen eremua eta protagonistak, hurrenez hurren) ahalik eta gehien murriztu eta deszentratzea.

Bigarrenik, eztabaida politikoa zabaldu egin beharko da, gaur egun mugatuta baitago, batez ere merkataritza-hazkundera eta baliabideen birbanaketan oinarritutako bitartekaritzetara

—isurtzearen teoriaren barruan beti—. Gure proposamena da leiho politiko guztiak irekitzea, birbanaketaren arlo oro aintzat hartuz —aberastasuna, errenta, lanak, eskubideak, denborak, jakintzak, materia, energia, ondasun komunak…, eta estatuaren eta enpleguaren birdefinizio kritiko bat—. Feminista eta deskoloniala izan beharko du klase-begiradak, eta arreta berezia eskaini beharko die bizitza ugaltzeko bitarteko nagusien jabetzari, kontrolari eta kudeaketa kolektiboari. Guztion existentziarako funtsezkoa denak denon eskuetan egon behar du.

Hirugarrenik, birbanaketaren alde gaude, eta kapitalismoak berezkoak dituen menderakuntza guztiak (*B-aurpegiak*) lehenera-tzearen alde. Alde batetik, boterea eta baliabideak kendu behar zaizkie merkatuei eta enpresa handiei, eta, bestetik, erdigunean jarri behar dira bizitzari benetan eusten dioten gauzak eta pertsonak, pandemian zehar ikusten ari garen guztiak. Balioa eta protagonismoa eman behar zaizkie lan emantzipatuei, elkar zaintzeari, herritarren eta nekazarien ekonomiei, eta lurralde eta ondasun erkideei, eta, horretarako, sendotu egin behar dira aliantza publiko-komunitarioak.

Lehentasunak aldatu eta eztabaida politikoa zabaltzeko ikuspegi horretatik, gure ikuspegiaren ardatzak azalduko ditugu. Termino bakoitzari ematen diogun esanahia labur-labur azaldu ostean, termino hori politikoki garatzeko funtsezko ideiak emango ditugu. Era berean, ezkerreko alderdien agendetan puri-purian dauden gaiak jorratuko ditugu motzean: oinarrizko errenta, zaintzak, zerga-sistema, *green new deal* delakoa edo Itun Berri Berdea, digitalizazioa eta abar. Aztertuko dugu ea horiek gaitasuna ote duten gurpil kapitalistatik irteten laguntzeko eta beste ekimen batzuekin batera trantsizio-estrategia bihurtzeko.

3.1. *Amalurtzea* edo "biosferarekin bakeak egitea"[2]

Ama Lurra, *Pachamama*, *Gaia*… bizitzaren bilbe konplexua izendatzeko hitzak dira, eta baieztatzen dute planeta finitu eta erdiitxi bateko azpisistema bat baino ez dela arlo sozioekonomikoa. Zalantzarik gabe, gaur finkatzen dugun edozein sistema sozioekonomikoren oinarri materiala (eskuragarri dagoen energia- eta materia-kantitatea, eta hondakinetarako hustubideen erabilgarritasuna) txikitu egingo da, denbora asko baitaramagu mugak gaindituta. Kolapso ekologikoa iritsi da. Benetan eztabaidatu beharrekoa hauxe da: nola banatuko den oinarri material gero eta urriago hori, premisa emantzipatzaileak erabiliz ala, kontrara, irizpide ekofaxistetan oinarrituz; aukeratutako eta antolatutako eran ala ezustean eta modu kaotikoan.

Isurtzearen teoriak fede handia du teknologian; uste du ekonomia desmaterializatu eta jasangarri bihurtuko duela, metatzea zalantzan jarri gabe. Baina, ideia hori erabateko kimera da. Aitzitik, ekonomia planetaren muga fisikoetara eta berorren natura erdiitxira itzularazi behar dugu berriro, eta birbanaketa ekologiko sakonari heldu behar diogu mundu osoan. Bizitzaren antolamendua *amalurtze* hori apustu saihestezina da hein batean, eta ezinbestekoa bestean.

2. Jorge Riechmannengandik jaso dugu adierazpide hori.

Apustu horiek garatzeko, funtsezko hiru ideia proposatzen ditugu. Batetik, funtsezkoa da *plangintza demokratikorako prozesuak* abiaraztea, *energia, materialak eta hondakinak sortu, erabili eta kudeatzearen inguruan*. Baliabideak banatzeko formula gisa merkatuak eta prezioak gainditu eta maila guztietako planak jarri behar ditugu abian (globaletik tokikora). Horiek, eskubideetan oinarrituz, sistema sozioekonomikoaren oinarri materialaren jabetza, kudeaketa eta erabilera birdefinitu beharko dituzte, gizartelehentasunak eta muga biofisikoak aintzat hartuz. Xede horrekin, ezinbestekoa da zenbait esparru (hala nola energia eta hondakinak, baina ez etxekoak bakarrik) esparru publiko-komunitarioan kokatzea, birbanaketa ekologikoari ekiteko gai izango diren gobernantza globalerako eremuak sortzea, eta sektore eta enpresa jakin batzuk arian-arian itxiz joatea, konpentsazio sozialeko mekanismoez lagunduta.

Bestetik, *ondasun naturalak demokratikoki arautzearen* alde gaude. Ildo horretan, oinarrizko urratsak izan daitezke, besteak beste: korporazioek lurraren eta uraren alorretan dituzten irabazien maximizazioa deuseztatzea; nekazari-ekonomiaren eta agroekologiaren ereduen alde egitea; energiaren alorreko prezioak arautu eta sorkuntza garbi eta tokikoa sustatzea, *pool* edo monopolio guztiak ezabatuz, ekimen publiko-komunitarioen alde eginez eta pobrezia energetikoa eragotziz, eta hondakinen sorrera mugatzea, modu jasangarrian bildu eta tratatzen direla bermatuz —ontzien araudia, atez atekoaren eta antzeko sistemen aldeko apustua—. Gainera, mega-proiektuak debekatzea proposatzen dugu, merkatu globalaren zerbitzura dauden erauzketa-tresnak dira eta.

Azkenik, *kapitalismo berdeari* eta *green new deal delakoari aurre egitea* proposatzen dugu, kolonizatuta baitute gaur egungo imajinario politiko eta mediatikoa, baita ezkerreko alderdi batzuetan ere. Krisi ekologiko eta sozioekonomikoa konpontzearren sektore jasanezinetako enplegua ustez garbiak diren beste sektore batzuetara desbideratzea (ekoizpenerako eta kontsumorako ereduak eta eskalak zalantzan jarri gabe) berriz ere posibilismo kapitalistara mugatzea da, eta amiltzen ari den gurpila berdez margotzea. Elite globalen apustu berdeak helburu argia du: kapitalismoak baliabideak kontsumitzeko duen beharrari mugarik ez jartzea, materialak eta energia fosila ahitze bidean egon arren. Aldi berean, aurpegia garbitzeko modu bat da, eta desmaterializazioan eta botere korporatiboaren mende dagoen teknologian sinestaraziz bizidun oro harrapatu eta merkantilizatzeko jarduna ezkutatzen du atzean. Kolapsoa une erabakigarria izan daiteke indarreko murrizketa ekologikoetan oinarrituz beste antolaketa-modu batzuk lantzeko, bizidunak berezkoa duen ekodependentzia aintzat hartuz. Hori ulertzea lagungarria izan daiteke gure bizimoduak *amalurtzeko* behar diren planifikazio- eta arautze-ahaleginak osatzeko.

3.2. Desmerkantilizazioa edo "diru gutxiago eta taldeko gehiago"

Badakigunez gaur-gaurkoz gurpil barruan gaudela, *soldatarekiko esklabotza* arintzearen alde gaude; hau da, gure bizitzak aurrera ateratzeko sarrera indibidualek duten hegemonia suntsitzearen alde. Diruan eta

norbanakoan oinarritutako gizartea antolatzeko moduetatik urrundu nahi dugu, jabekidetasunerako eta kogestiorako formula berriak landuko dituen itun publiko-komunitarioaren bidez. Azken buruan, kontua da merkatu kapitalistak (botere korporatiboak esplotatzeko, menderatzeko eta kontrolatzeko erabiltzen dituen eremu naturalak) dezentratzea, funtsezko lan ikusezindu, feminizatu eta arrazializatuen (*benetako* ekonomiak inoiz aipatzen ez dituenen) *B-aurpegian* euskarritzen baita.

Funtsezko hiru ideia aurkezten ditugu ardatz hori garatzeko. *Bizitza ugaltzeko bitarteko nagusiak kolektibizatzean* datza lehena. Publifikatzea da gure aukera; hain zuzen ere, zuzenean gure bizitzaren iraunkortasunarekin lotuta daudelako *funtsezkotzat* jotzen ditugun sektoreak publifikatzea, guztiona denaren ikuspegi berrietatik eta plangintza demokratikoetatik abiatuz. Gure iritzian, multzo horretan daude, zalantzarik gabe: zaintzak, bereziki haurtzaroari eta mendekotasun-egoerei lotutakoak —berorren pribatizazio bikoitzari egin behar zaio aurre, pribatu-merkataritzakoari eta pribatu-etxekoari—; nekazaritza eta elikadura; energia eta ondasun naturalak; hezkuntza; osasuna, eta gizarte-zerbitzuak. Bizitzarako funtsezkoak badira, ezin dira irabazi-asmoari lotuta egon; bizitza ez da negozioa. Baina publifikazioak eta interes orokorra lehenesteak (irabaziak beharrean) eragina izan behar du, halaber, gure sistema sozioekonomikoaren gaurko eta etorkizuneko funtsezko esparruetan ere, hala nola finantzetan, datuetan eta adimen artifizialean. Sektore batzuk irabazi-asmoaren jardueraesparrutik atera behar dira, berehala, publiko-komunaren aldeko apustu horren bidez. Adibidez, uraren kudeaketa, *monopolio publiko-komunitario* gisa ulertuta; *big data* edo datu masiboak, datuen banku publikoa sortuz, eta mendekotasunari zuzendutako arreta, zuzeneko kudeaketako zerbitzu publiko, unibertsal eta doakotzat hartuta. Beste aukera bat da irabazi-asmoa arian-arian desagerrarazteko prozesu bati ekitea, merkatua zorrozki arautuz eta alternatiba publiko-komunitarioak bermatuz, adibidez, finantzetan, etxebizitzan eta elikaduran. Edonola ere, jabego pribatuari aurka egiteko formulak ere sustatu behar dira apustu horren barruan, okupazioa eta gizarte-zentro autogestionatuak esaterako, eta, horretarako, egungo legeria deuseztatu beharra ere egongo da.

Lan guztiak birbanatu, birbalioetsi eta berrantolatzeari buruzkoa da bigarrena. Funtsezkoa da lanaren sexuaren eta arrazaren araberako nazioarteko banaketa eta laneko hierarkia globalean gorengo mailetan egoteari lotutako lehia transnazionala alde batera uztea eta lana birbanatzearen alde egitea, hala enpleguari dagokionez nola *B-aurpegian* ordaintzen ez diren lanei dagokienez. Ezinbestekoa da, halaber, lanari berriro balioa ematea eta berorren balioa bizitzari egiten dion ekarpenaren araberakoa izatea, ez metatze-prozesuaren araberakoa. Horrela, bada, lanak berrantolatu egin beharko lirateke, eta, berrantolatze horretan, funtsezkoenak atera beharko lirateke, lehenengo, merkataritza-eremu kapitalistatik. Hortaz, hainbat esku-hartze proposatzen ditugu: gizarte osoaren erantzukizuna izan beharko luketen lan asko eta askotarikoak etxeetatik ateratzea, mendekotasun-egoerari lotutakoak, adibidez; eskulanaren ostean dagoen bizitza babesteko laneko legeria bat sustatzea, lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko eskubideei arreta berezia eskainiz; etxeko lana duintzea eta beste sektore batzuekin parekatzea; enple-

guaren uberizazioari eta autonomo faltsuaren irudiari aurre egitea; soldata-taulak berrikustea, bizitzari eusteko zereginean egiten duten ekarpenaren arabera; gehieneko eta gutxieneko soldatak finkatzea; lanaldia murriztea (soldata txikitu gabe); arrazaren eta sexuaren ondoriozko soldata-arrakala ezabatzea, eta langileen eta erakunde sindikalen arteko negoziazio-baldintzak bermatzea.

Eskubideen esparrua desmerkantilizatzeaz eta deslaboralizatzeaz dihardu hirugarrenak. Gaur egun, eskubideak lan-merkatuari lotuta daude funtsean —langabezia, pentsioak, alarguntasuna, migrazio-estatusa eta abar—, edo koordainketa-maila ezberdinetan murgilduta. Horren aurrean, herritarren eskubidetzat hartzea proposatzen dugu, alde batera utzita kotizatu den ala ez, eta kutxa komunik dagoen ala ez. Migratzaile eta errefuxiatuak baldintzarik gabe arautzea planteatzen dugu, eta, horretarako, bizi dugun egoera kritikoa aitzakiatzat hartzea, beharrezkoa izanez gero.

Esparruak, lanak eta eskubideak desmerkantilizatzea funtsezko ardatza da metaketaren iruzurra errotik ateratzeko. Beraz, zer esan dezakegu oinarrizko errenta unibertsalaz? Gure iritzian, merkatuan kontsumitu ahal izateko sarrera indibidualak bermatzen dituenez, gurpil kapitalistaren barruko proposamen bat da, nahiz eta sarrera deslaboralizatu. Horregatik, ezin dugu gure etorkizun emantzipatzailearen ardatzean jarri. Oinarrizko errenta unibertsala izateak ez gaitu libratzen ehun sozioekonomikoaren gaineko mendekotasun kapitalistatik, ezta diru kapitalistaren esklabotzatik ere. Alabaina, tresna baliagarria izan daiteke, baldin eta berori ezartzeak eskubideak osatzen baditu (ez ordezkatu), izaera kolektiboko mekanismoetan urratsak ematen badira eta hedadura handiagoko trantsizio-estrategia batean aplikatzen bada epealdi jakin batez.

3.3. Deskorporatibizazioa edo "enpresa handien aurka, orain"

Desmerkantilizazioarekin batera, funtsezko ardatza da korporazioen botere eskerga langileei itzularaztea, batez ere gaur egun *B-aurpegian* dihardutenen kasuan. Merkatuak —metatzearen eremu naturala— desegiteaz gain, herritarren boterea indartzea da apustua, eta, horretarako, enpresarik boteretsuenei erasotzea, botere korporatiboa arautzea eta eremu demokratikoak berreskuratzea.

Alde horretatik, *zigorgabetasun korporatiboaren arkitektura politiko-juridikoa eraitsi* nahi dugu aurrena. Enpresa handiek diseinatutako gobernantza-eredu globalak blindatu egiten ditu haien interesak (indar demokratiko ezin txikiagoz), eta, konstituzio korporatibo global moduko batean oinarrituta, eskubide-urraketengatik erantzun behar ez izatea bermatzen die. Tratatu, araudi eta abarren sare nahasi baten bidez, transnazionalentzako goi-mailako arau moduko bat sortu da, enpresaren interes handien zerbitzura. Oinarri-oinarrizkoa da multinazionalen zerbitzura dagoen arkitektura hori eraistea, hala erakunde ekonomiko aldeaniztunak (Munduko Merkataritza Antolakundea, Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua eta abar) nola azken belaunaldiko merkataritza- eta inbertsio-tratatuak. Orobat, garrantzitsua da eskualde-proiektuen analisi kritikoa

agendan sartzea, Europar Batasunarena, esaterako, zeinaren tratatuek eta diru-sistemak (euroak) posible denaren esparrua ikuspegi neoliberal hutsera mugatzen duten.

Bigarrenik, *botere korporatiboa arautu nahi dugu, langileen mesedetan.* Zehaztu ditugun lan-proposamenez harago, gutxieneko pentsioak handitzea da proposamena; etxebizitza arautzea (salneurriak, lurzorua, utzarazpenak betirako debekatzea, parke publikoa alokairu sozialera lotzea, etxebizitzak erabiltzeko lagatzea); herritartasun unibertsala finkatzea, atzerritarrei buruzko legeak baztertuz; merkatua kontrolatzea, oligopolioak eta kapital-kontzentrazioak eragozteko; eskubideak babesteko estrategiak sustatzea, eta suntsitzen ari diren enpresa eta sektoreetako langileak birziklatzea. Horren harira, *zerga-sistema progresibo bat* bilatzen dugu, zeharkako zergapetzea beharrean zuzenekoa lehenetsiko duena, irabazi korporatiboetan, ondarean eta erdi- eta goi-mailako errentetan jarriz enfasia. Iruzurraren aurka borrokatzea ezinbestekoa da, bai eta fortuna handien gaineko zerga berreskuratzea, kenkari eta hobariei lotutako ingeniaritza suntsitzea eta momentu berezietarako proposamen osagarriak entseatzea ere (esate baterako, COVID-19 tasaren aldaerak). Horiek gurpilaren barruan daude, zalantzarik gabe; baina, aukera ematen dute krisi-garaietan gehien dutenek gehien galtzeko. Eta botere korporatiboaren aurrean herrien boterea sendotzeko formulekin konbina ditzakegu neurri horiek, hala nola legez kanpoko zor jasanezin eta gorrotagarriaren gaineko herritar-auditoretzekin, eta, horrela, planteamendu irmo bat sor dezakegu: "zor ez dugunez, ez dugu orainduko".

Hirugarrenik, deskorporatibizatzea proposatzen dugu. Horretarako, *beste ekonomia batzuetan oinarritutako ekimenak eta sistemak bultzatu* behar dira, garrantzia emanez ekonomia solidario, eraldatzaile eta herritarrak betetzen dituzten espazioei; elikadura-burujabetzari; kooperatibei; ETE-ei, eta abarri. Erakunde publikoak prozesu horren parte izan beharko lirateke. Araudien eta klausulen bidez, erakunde publikoek lehentasuna izan beharko lukete erosketa eta inbertsio publikoan, eta proposamen berritzaileak bultzatu beharko lirateke (besteak beste, zaintza-kooperatiba integralak).

Deskorporatibizazioaren aldeko apustuaren barruan, aipamen berezia merezi du ekonomia digitalak. Elkarlanean oinarritutako izaera horizontala duela defendatzen badu ere, inoiz iritsi ez den lekura eraman du botere korporatiboa, bai tamainan eta bai gaitasunean. Estatu Batuetako eta Txinako enpresa gutxi batzuek kontrolatzen dute prozesu ekonomiko osoa: lehengaia (datuak), espazioak (plataformak) eta adimen artifizialeko askotariko zerbitzuak. Ezkerrek ez lukete errealitate hori kritikatu gabe onartu behar. Datuen banku publikoak sortzea eta interes orokorraren mesedetan zerbitzu publiko-sozialak garatzea ezinbestekoak dira emantzipazio-estrategia orotan.

3.4. Lurralderatzea edo "tokiko subiranotasunak"

Ahulak eta bideraezinak direla erakutsi dute hiperlotura global handiagorako joerak, deslokalizazioak eta zirkuitu sozioekonomikoen konplexutzeak, eta, gainera, gobernantza-esparru korporatibo bat eta

botere- eta metatze-eredu oso ezberdina sortu dute nazioartean. Gure apustua da egun globaltasunak duen nagusitasuna suntsitzea eta tokikoaren eta gertukoaren, ekosistemetarako onargarria denaren eta politikan eta demokrazian zentzuzkoa denaren alde egitea. Ez dugu proposatzen munduaren, eskualdearen eta estatuaren eskalak erabat deuseztatzea —baina bai rolak birdefinitzea—; izan ere, horien artean dagoen lotura benetakoa da, eta onargarria ere bai, segur aski.

G*obernantza-eredu global berria* proposatzen dugu lehen funtsezko ideia gisa, eta, horrekin batera, dagoeneko aipatu dugun zigorgabetasunaren arkitektura eraistea, partekatzen ditugun erronkei —klima-aldaketa, birbanaketa ekologikoa eta migrazioak, besteak beste— demokratikoki aurre egiteko benetako gaitasuna izango duen arkitektura politiko berri batean oinarrituz. Bizitzaren bilbeak bere baitan eta ekologiarekin duen mendekotasuna bistaratzen dute erronka horiek; beraz, egitura demokratikoak behar ditugu, erronka horiei erabakimenez eta eskubideak nahiz bizitza kolektiboa babestuz aurre egin diezaieten, konpromiso lotesleak ezarriz.

Bigarren lekuan, *estatu-nazioaren irudia berrikustea* proposatzen dugu, korporazioen gaur egungo nagusitasunaren beste muturrean. Iruditzen zaigu garrantzitsua izan daitekeela itun publiko-komunitarioaren aldeko apustuan (arlo horretan bere izaera birdefinitzen badu), eta herrien autodeterminazio- eta subiranotasun-eskaera legitimoei erantzuten. Kolonialismoan eta inperialismoan oinarritutako historiak eman dituen estatu-egiturak ezin dira bere horretan geratu, baldin eta nahi dugun trantsizioaren eragile izango badira. Ezinbestekoa da edozein etorkizun supremazistatik eta komunitate-gotorlekuen blindajetik urruntzea eztabaida hau, bai eta tokikoa lehenestea eta feminismoaren, elikaduraren eta energiaren alorretako subiranotasunak bilatzea ere.

Azkenik, *eredu soziekonomikoak lurraldean errotzea*, sinplifikatzea eta zirkuitu ekonomikoak laburtzea bultzatzen dugu. Zirkuitu ekonomiko txikiagoak eta bakunagoak behar ditugu, erantzunkide sentitzea ahalbidetuko digutenak, zer leku betetzen dugun ulertzearen ondorioz. Elikadura-kateak eta zaintza-kateak estrategikoak dira birkokatze horri ekiteko. Logika horretan, eztabaida piztu nahi dugu *gure gizarteak berriro nekazari-tzaratzeari* buruz, eta aurrerapenari buruzko gure usteen sustraietan dagoen *hiri-zorigaitzaren* pentsamendua hautsi.

4. EZTABAIDA AMAIGABEA

Hauxe da gure erreferentziazko esparruaren identitatea: bizitzaren antolamendua *amalurtzea*, desmerkantilizatzea, deskorporatibizatzea eta lurralderatzea, lehentasunak irauliz eta posible denaren esparrua irekiz, klase-borrokak, feminismoak eta dekolonialitateak bultzatutako birbanaketa erabateko eta osotik abiatuta. Gaia amaigabea denez, eztabaidatzen, elikatzen eta aberasten jarraitu nahi genuke, beste batzuekin batera. Eta, aldi berean, balio dezala kutsatzeko, eztabaidatzeko eta inspiratzeko tresna gisa, trantsiziorako estrategiak sustatzeko eta ugaritzeko, askotariko subjektuetatik, eragileetatik, egoeretatik eta testuinguruetatik abiatuz.

Erronka argia da: estrategietako ardatzak, funtsezko ideiak eta proposamen zehatzak uztartzea, bat egin dezaten etorkizunak eta premiak, *A-aurpegiak* eta *B-aurpegiak*, birbanaketak, aintzatespenak eta ordezkaritzak. Tentsioz jositako presazko eta beharrezko eginkizuna da, bereziki kapitala-bizitza gatazka areagotuta dagoen une hauetan. Adoregabetasunean ez erortzeko, ekin diezaiogun lanari!